

Eztabaida bizia erabili da prentsan azken asteotan, gure Erakunde hau dela eta. Irakurle asko erdigaldua gertatu da agian, informazio garbiri ezinean, arazoaren funtsa asmatu ezinik.

UZEIrekin batera beste Erakunde eta Talde batzu ere behin baino gehiagotan aipatu eta ukitu izan dira. Ez da harriztekoa; ezin bait daiteke UZEI bereiz, azken hamar-hamabost urteotan zientziaren, teknikaren, administrazioaren eta irakaskuntzaren maila eta alor guztiara euskara eramatean ahalguztiaren mugimendutik, eta bereziki, proiektu horren bidetan; lanean diharduten hainbat Erakunde eta Talde konkretutatik.

Artikulu honen eta ondorengo bidez, UZEI Erakunde eta Lantegiaren berri eman nahi dugu, horren asmoak, lanak, erizpideak eta jokabidea azalduz, eta eztabaidan dabilen zenbait punturi buruz geure eritzia eskainiz. Etxe honek ez du inolako eztabaida mingarri eta helkorretan abiatzeko asmorik.

Gure ustez, polemika horrek badu maila bat baino gehiago: a) Bata, *teknikoa eta metodologikoa* da, hizkuntzalarien, jakintza-alor bakoitzeko adituen eta hiztegi-ileen artean eztertzea. Ez egunkariak eta ez kultura orokorrek aldi-zikariak dira horretarako egokiak. Zalantzarik gabe beharrezkoa du UZEIren lanak maila horretako kritika sistematikoa; horren zain gaude. Horretarako bidea ireki nahi genuke. b) Bestea, *soziala eta kulturala* da. Gure hizkuntza-kulturen bizitzaz eta etorkizunaz arduraturik dabilen guztiak due hitza hemen. Ez da erraza sarritan bi mailen arteko mugak zehaztea; bigarrenaren ikuspegitik doaz bereziki artikulu hauek.

Garbi dago, bestealde, kultur eta hizkuntz politika orokorraren arazoak nahasirik dabilzala hor; baina UZEI ez du maila politiko horretan aipatu nahi.

Badu UZEIek txosten luze bat landua: "UZEIren historia eta go-goeta" (1981, urtarrila), 232 orrialde ditu. Bertan azaltzen dira Erakundearen asmoa, erizpideak, lana, finantzapena, harremanak, etab. Txostena ez da ezkutukoa, eta dagokien hainbat Erakunde eta lagunen eskuetan dago aspalditik. Hortxe atera dugu, hain zuzen, hainbat berri artikulu hauetarako. UHG siglaren bidez adieraziko dira aipamenak.

### Historiaurrea eta inguruak

1977an sortu zen UZEI: Eren hartako inguru sozial eta politiko konkretuaren barruan. Baina ez dugu uste batez ere hor bilatu behar denik UZEIren sorreraren gakoa. Aspalditik euskal kulturaren munduan heltzen eta lantzen ari

*UZEI (Unibertsitate-Zerbitzueterako Euskal Ikastetxea) ha sido el centro de un amplio y a veces agrio debate durante las últimas semanas, a raíz de algunas tomas de postura muy críticas de Koldo Mitxelena sobre su trabajo y, más en concreto, de sus Diccionarios. Esta Institución apenas ha participado en la polémica. Sin embargo, ahora se siente en la necesidad y obligación de informar sobre sus actividades, de rectificar inexactitudes y falsedades y de expresar su postura. Lo vamos a hacer los trabajadores de UZEI, mediante una serie de artículos de periódico en "Deia" y EGIN a cuyos directores agradecemos su amable acogida.*

## uzei informa y responde (I)

# hauxe da uzei

ziren asmo eta proiektuen fruitua da zuzenean UZEI.

1973an bildu zen lehen aldiz UEU (Udako Euskal Unibertsitatea). Ordutik hona urtero bildu da. Euskararen normalizazio kulturala izan du bere asmo nagusien eta funtsezkoena; hau da, kultur alor eta maila guztiak euskaraz erabilitea, eta horrela euskara tekniko-berezitua bera —lexikoa eta hizkera— normalduz joatea.

Euskararen normalizazio "kulturala", horren forma batu eta estandarizatuaren gainean eraikitzen da. Hain zuzen ere, euskararen batasun-bidearen ondorio bezala abiatzen da horren "normalizazio kulturalaren" mugimendua. Hor barruan ulertu behar da UZEIren sorrera ere.

Jakin taldearen proiektua izan zen zuzenean UZEI. 25 urteko historia du, ordea, *Jakin* aldizkariak. Eta lehen zenbakitik hasita, euskarak "kultur-joera eta kultur-ats guzi-guzietan murgildu" beharrene kezka agertzen zuen, eta aldizkariak berak "edotariko gaiak" erabiltzeko erabakia azaltzen. 8. zenbakian (1958an), berriz, aurkeztu du Urretarazu "Umandi" berak Hiztegi tekniko-berezituen premia: "Teknika-itz bildumak beharrik ditugu; irakaskintza gai guzietarako; lanbide orotarako; erti eta kulturazko mola denetarako; banaketarako; zuzentzan buruzko guzietarako; jolas eta kirolletarako... Itz batez, biizierako den guzietarako". Bide horretatik erabaki zuten *Jakin* ek 1972an —orain dela hamar urte— lan horri sistematikoki ekitea. Lehen fruitua, *Natur Zientziak Hiztegia*, 1976an kaleratu zuen. *Aranzadiko* bost lagunek jarri zuten gaiaren aldetikako ardura eta lankidetzaz nagusia; *Jakinek* euskarari buruzkoa. Bi taldeen elkarlana, beraz.

1972-3an eratu zen *Elhuyar* taldea, zientzia zehatzak euskaraz lantzeko. Hasiera-hasieratik bideratu zituen bi asmo hauek: beren alorreko literatura berezitutik lexiko teknikoak biltzea eta *Elhuyar* izeneko aldizkaria argitaratzea. 1974ean agertu zen lehen zenbakia. Ordurako, *Jakinekin* batera, Fisika-Kimika hiztegia —gero UZEI

bitan atera duena— programatua zuen.

Normalbide honetan ez dago ahaizterik zenbait Fakultatetan ihardun ziren Euskal Kultur Talde eta Mintegiak, Unibertsitatean euskarazko irakaskuntza —eta ez euskararen irakaskuntza bakarrik— abiatzeko garrantzi handia izan bait zuten.

Euskararen normalizazio kulturalaren mugimendu aspalditiko eta zabalaren haritik etorri eta orretako hainbat proiektu eta ekintzen baterakuntza bezala sortu zen, bada, UZEI. Sail berezitan euskararen normalizazio-lanean ari ziren hainbat talde eta erakunderdi Koordinazio-bidea ematea eta beste hainbat sortu eta eragitea zuen bere asmoa.

### Asmoa eta proiektua

"Jakintza-sail eta lanbideremu desberdinetan euskararen normalizazio lexikalerako zenbait oinarri jarri nahi dituen zerbitzu-ikastetxe" bezala definitzen du UZEI bere burua (UHG, 2.1). Euskal Unibertsitateari begira eskaini nahi du zerbitzu hori: "UZEI, euskararen normalizaziorako erakunde bezala definitzen delarik, mugazekino normalizazio honen esparrutuan Unibertsitate mailan kokatzen da. Gaur dugun behin-behineko egoeran, Unibertsitate aurreko irakas mailetan ere zeregin berezia izan dezake" (UHG, 1.5).

Bere zerbitzua konkretatuz eta aipaturiko oinarriak zehatzuz, Unibertsitate euskalduntzeko "azpiegintza" lantzea hartzen du enginikuntza: "Esandako helburu nagusi horietarako egiteko bazerrezina da, UZEIrentzat, Unibertsitate euskaldunaren azpiegintza lantzea: —Azpiegintza bibliografikoa; —Azpiegintza hizkuntzazkoa; —Azpiegintza pertsonala. Ardatz horren erdigunea *Hiztegi berezituak* dira, hiru dimentsiotako azpiegintzarak biltzen dituztenak" (UHG, 1.4).

Hala ere, eta euskararen gaurko normalbide osoari begiratu, Unibertsitateak eta irakasuntzatik kanpora bere egitekoa zabaldu beharra aurkitu du UZEIek, gizarte —eta lanbide— sektoreen eskabideei erantzuteko: "Begi bistakoa da euskararen normalizazioa lortu nahi badu, bere lanak gizarteko beste arlo eta

maila guztiara hedatu behar dituela. Horregatik, helmuga horretara iristeko premiazko zabaldunde-lanak burutzen saiatuko da, batez ere eke sozialei erantzunez" (UHG, 1.5).

### Erakundez

Instituzio konkretua da UZEI. Donostiako Parte Zaharrea, Esterlines kalean du bere lantegia. "Irabaz-asmorik gabeko Elkargoa" da, baina lan-talde profesionala babeseko asmatua. Hamabost langile lanegun osoan ari dira bertan, eta ordutua beste batzu. Lantegi honetatik organizatzen, gidatzen eta koordinatzen dira kanpoan ordutua lanegintza duten beste hainbat talde eta lankide.

Saika edo departamentutan eraturik dago UZEI: batzu orokorrek eta besteak berezituak. Zenbait arazoirengatik —finantzapen-arazoa funtsean—, beharko litzatekeen sail-banaketa osoa eta egokiena egiterik ez da izan oraindik.

### UZEIko sail berezituak

Zuzenbidea/Administrazioa  
Ekonomia/Enpresa/Banka.  
Politika/Sozialgia  
Filosofia  
Natur Zientziak  
Artea/Hirigintza/Eraikuntza  
Medikuntza  
Psikologia/Pedagogia  
Erligioa.  
Historia/Geografia.  
Teknologia  
Fisika/Kimika/Matematika.  
Kirolak.  
Hizkuntzalarieta/Literatura.

### UZEIren lanak

Lau urte terdiko lanik nagusiarena Hiztegiatza izandu UZEIko. Hona burututa edo bideratuta dauzkana:

#### Argitaratuta

—Fisika —Kimika. —Psikologia.  
—Politika. —Ekonomia. —Enpresa.  
—Matematika (berehala). —Kirolak (1. mailakoa).

#### Bukatuta

—Teknologia mekanikoa. —Hizkuntzalarieta. —Artea. —Administrazioa. —Trafikoa.

#### Lantzen

—Filosofia. —Medikuntza. —Historia. —Erligioa. —Literatura. —Botanika. —Zuzenbidea. —Banka. —Hirigintza. —Eraikuntza.

#### Asmotan

—Merkatalgoa. —Geografia. —Pedagogia. —Zoologia. —Komunikazioa. —Soziologia.

Baina UZEIren lana ez da inolako ere Hiztegiatza agortu. Bestelako zenbait ekintza nagusi aipatzekoak dira:

1.— *Ikastaroak*. Berrogei bat ikastaro enan ditu UZEIek, hainbat lekutan, bere barruko lanaren osagarri eta luzagarri bezala. Hauen artean sar daitezke Unibertsitateko zenbait sailtan zuzenduriko mintegiak ere.

2.— *Euskal Lexikologiako ikerkuntza*. Bere hiztegiatzaeren oinarriak finkatzeko lexiko-sorkuntzarako bideak landu ditu; era berean sortzen zaizkion arazo lexikografikoei ere sistematikoki erantzunaz joan da. Hurrengo artikuluetan azalduko ditugu gure erizpideak. Esan beharra dago, hala ere, UZEIren hasieran bertan, hiru egunetako ordu luzeak sartu zituztela 25 bat lagunek, oinarriko erizpideak eztertze eta erabakitzeak. UZEIko lankideez gain beste hainbat hizkuntzalari eta hiztegielak hartu zuten parte bilera haietan.

3.— *Kontsultategia*. Toki askotatik (enpresa, bulego, udallexe, jatetxe, denda, lantegi etab.) eta hainbat eraketo kontsultak (errotulok, antunzioak, jatetxetako janarien izenak, erreziboak, isun edomultak, lantegietako abisua, fakturak eta beste) etortzen zaizkio UZEIri. Batzutan hitz soilak galdetzen dira, beste askotan esaldiaren egiturarekin, sintaxiarekin zerikusi handiagere dutenak. Emandako erantzunak 8 fitxategi handitan bildurik eta ordenaturik dauzkagu (9.000 fitxatetik gora).

4.— *Itzulpen-zerbitzua*. Testu bereziak bakarrik itzultzen ditu UZEIek: hau da, beren edukinagatik edo izango duten hedaburugatik euskararen azpiegintza berean eragin handia izango dutenak.

5.— *Udallexetako itzultzaileen koordinazioa*. Zerbitzu hau behin eta berriz eskatu izan zaigu. Beti ere, gure Zuzenbideko Hiztegiarekin eta beste hainbatekin lotuta ikusi izan dugu. Azpiegintza eta koordinatze bidea eskaintzen du UZEIek hemen ere.

Horixe da UZEI, ez besterik: Euskararen "normalizazio kulturala" bideratzeko Institutio eta lantegi bat, hortan diharduten hainbat lagun eta lankide koordinatzen dituen. "UZEI-ren bat" beharrezkoa dela uste dugu, normalizazio hori aurrera eramango bada. Hortantxe saiatzen gara.

UZEIko langileak.